


IKERKETA-TXOSTENA

Emakumeen Ahalduntze Sexualaren Autopertzepzioa



Munduberriak

Mundu Berriak GGKE sexologikoa,
kulturartekoa eta feminista da. Eskubide
sexualak sustatzea eta ahalduntze
sexualeko prozesuei ekitea da gure
komunitatearen zeregina, indarkeria
matxisten, oro har, eta zehazki indarkeria
sexualaren, ondorioei aurre egiteko eta
esku hartzeko.



- www.munduberriak.com
- E-mail: info@munduberriak.com



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EKIMENAK
INICIATIVAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRRES
APOYADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

**Gure esker ona parte hartu duten emakume guztiei,
ikerketa hau burutzea ahalbidetu baitute.**

Proiektuan parte hartzeagatik eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki:

Olatz Aizpurua San Roman. 

Olatzek proiektuaren inkesta jaso zuen, emakumeen ahalduntze sexualaz
sentsibilizatutako beste hainbat emakumek bezala, eta laguntzeko gogoz jarri zen
gurekin harremanetan.

Biologoa eta Paisaiaren Ekologian doktorea da, eta datuak aztertzen lagundu du,
lanari kanpoko ikuspegi kritikoa emanez.



Aurkibidea

01

1. Sarrera

02

2. Planteamendu teoriko-kontzeptuala

2.1. Premiatik ekintzara.

2.2. Emakumeen gorputza kontrol-lurralde gisa.

2.3 Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora.

2.4. Norberaren boteretik botere kolektibora.

03

3. Lan-hipotesia. Arazoaren formulazioa

04

4. Metodologia

4.1. Kuantitatiboa.

4.2. Kualitatiboa.

05

5. Eztabaida eta emaitzak

5.1. Ekarpenak.

5.2 Emaitzak eta ondorioak.

5.3. Mugak eta hobetzeko proposamenak.

5.4. Etorkizuneko lan ildoak.

5.5. AMIA azterketa.

5.6 Alde onak eta txarrak.

06

6.1 Ikerketatik ekintzara.

6.2. Inspiratu gaituzten emakumeak

ERANSKINAK-TAULAK

Laburpena

Ikerketa-ekintza berritzaile bat, ikuspegi anitzekoa. Begirada sexologikoa, feminista eta sexu aniztasunarena (LGBT+) biltzen duena. Azterlanaren xedea 18-64 urte bitarteko emakumeen ahalduntze sexualaren autopertzepzioa da, metodologia kuantitatibo-kualitatibo bat erabiliz, non argi eta garbi egiaztatzen diren korrelazio positibo edo zuzen gisa formulatutako lau hipotesitatik hiru. Hau da, sexu-ezagutzaren eta sexu-gogobetetzearen arteko korrelazioa, kontzientzia feministaren eta sexu-erasoen/genero-indarkeriaren identifikazioaren arteko korrelazioa eta autoeregainkortasun sexualaren pertzepzioaren eta sexu-asetibitatearen arteko arteko korrelazioa. Autoestimua sexualak eta sexu-motibazioak osatutako korrelazioak azterketa eta analisi sakonagoak behar ditu. Ondorioztatzen da parte hartzen duten emakumeen sexu-ahalduntzearen autopertzepzio handia dagoela, erotofiliako jarreraren eta Giza Izate Sexualaren (GIS) esparruan ulermen-jarreraren islatzen dena.

Gako-hitzak

Ahalduntze sexuala, autopertzepzioa, sexua, sexualitatea, erotika, feminismoa, sexu-aniztasuna, sexu-ezagutza, gogobetetze sexuala, autoestimua sexuala, motibazio sexuala, kontzientzia feminista, indarkeria sexualen/genero-indarkeriaren identifikazioa, asertibitate sexuala, autoeraginkortasun sexualaren pertzepzioa, erotofilia, erotofobia, Giza Izate Sexuala (GIS).

1. Sarrera

Emakumeen sexualitatearen arloko ezagutza zientifikoa sortzen

Emakumeen sexualitateari buruzko ikerketak sortzeko beharra funtsezkoa da nagusi den eredu zientifikoan ezarritako androzentrismoa hausteko. Horren bidez, bi helburu bete nahi izan ditugu: alde batetik, ikerketa hau aurrerapauso bat da emakumeen sexualitatea hurbilagotik ulertzeko bidean. Eta, bestalde, galdetegi gisa, emakumeen sexualitatearen bizipena pluralean jasotzen saiatu gara, edo, bestela, modu teknikoagoan esanda, interseksionalitatea.

Era berean, sexualitatearen alorreko ezagutza zientifikoaren ekoizpena Munduko Sexologia Elkartearen (WAS) Batzarrean 1999an Hong Kongen egindako Sexologiaren XIV. Mundu Biltzarrean aitortutako hamaika eskubide sexualetatik bederatzigarrena da. Adierazpen horrek gogorarazten digu eskubide sexualak Giza Eskubideen ikuspegitik ulertu behar direla, edo, Londoño egileak adierazi bezala, "Eskubide sexualak giza eskubideen artean gizatiarrenak dira".

1. Sarrera

Ikerketa honek beharrezko ikuspegi sexologikoa, feminista eta sexu-aniztasunarena ditu, emakumeen ahalduntze sexuala aztertzen baitu, hain zuzen ere, emakumeen autopertzepzioa.

Baina zer esan nahi du "sexu-ahalduntzearen autopertzepzioak"? Botereaz jabetzearen pertzepziotzat har genezake, garen, dugun eta egiten dugun sexuari dagokionez, sexualitatearen mapa gisa gorputzari duen garrantzi handia emanez. Beraz, gorputzaren (bizi-zikloak) eta sexualitatearen gaineko autonomia eta kontrola lortzea eskatzen du, desio eta fantasia erotikokoak kontuan hartuta.

Gainera, emakumeengan nork bere burua zaintzea sustatzea du helburu, Pema Chodrön egileak esaten duena kontuan hartuta: *"Autoezagutzari adeitasunik gabe heltzea eraso-ekintza bat da"*.



2. Planteamendu teorikoa

2.1 PREMIATIK EKINTZARA

2.2 EMAKUMEEN GORPUTZA KONTROL-LURRALDE GISA

2.3. AHALDUNTZETIK SEXU-AHALDUNTZEAREN
AUTOPERTZEPZIORA

2.4. NORBERAREN BOTERETIK BOTERE KOLEKTIBORA
(NARRATIBA KOLEKTIBOAK)

Planteamendu teorikoa

2017an, "Sexu-indarkeriak prebenitzeko sexu-ahalduntzearen prozesuak aztertzea, sistematizatzea eta ebaluatzea" izenekoan parte hartu genuen. Elkarte horren egilea Bakegintza eta Bizikidetzarako "Mujeres de Colores Elkartea" da.

Gure erakundearen eta emakume-elkarte honen arteko sinergia aberatsetatik emakumeen ahalduntze sexualaren eremuan lortzen ditugu fruituak. Egia bada ere, alde nabarmenak daude bien artean. Elkarte horrek emakumeekin zuzeneko jarduerak/esku-hartzeak sustatzen ditu, emakumeen sexualitateari heltzeko behar praktikoari erantzuteko. Gure erakunde mistoak, aldiz, arlo horretako ezagutzak indartzeko interes estrategikoa sustatzen du. Bien artean, emakumeen ahalduntze sexualeko prozesuak ikuspegi intersektzionaletik ikusarazteko, sentsibilizatzeko, prestatzeko eta sustatzeko helburuarekin lan egiten dugu. Eta, zehazki, ikerketa honetako begiradak hiru dira:





IKUSPEGI SEXOLOGIKOA

Gure begiradak sexua balio gisa integratzen du. Horregatik, Sexologiak diziplina zientifiko gisa (*episteme* propioarekin) gehiago aztertzen eta zabaltzen ditu “Sexuen izatearen” ezaugarriak eta balioak, sexu-arazoak baino. Modu eraginkorrean lortu da sexu-patologiaren ibilbidea eta Giza Izate Sexualaren mapa orokorra (GIS) bat ez egitea. Era berean, ikuspegi sexologiko horrek sexualitatearen esparruan modu okerrean erabiltzen diren kontzeptu asko egoki erabiltzen laguntzen du.

Sexua balore gisa ulertzetik, sexu-ahalduntzearen baliora, urrats bat dago. Horretarako, genero ikuspegiaren kategoria analitikoa hartu behar da kontuan, ikuspegi feministara eramango gaituena.



Singularrean erabilitako ikuspegi "feminista" horrek ez du "feminismoen" aniztasunak ematen duen interseksionalitatearen aberastasunik.

Zehazki, ikerketa honetan hori goraipatzen dugu; izan ere, emakume arrazaliziatuen ahotsek parte hartzen dute, haien beharrak, interesak, jarrerak, salaketak eta jarduerak adieraziz, sexua izatearen, egitearen eta edukitzearen bizipen aberatsago baten alde.

Bizi ditugun garaien ondorioz, lehentasunezkoa da, besteak beste, feminismo komunitariotik datozen narratibak eta jarduera soziopolitikoak entzutea, ulertzea eta integratzea, emakumeen sexualitatearen esparruan benetako ezagutza eraldatzailea sortzeko.



Sexu-aniztasunari buruzko ikuspegia bikoitza da premiagatik, eta genero-ikuspegiaren parte da. Alde batetik, azpimarratzen da aniztasuna pertsona bakoitzaren ezaugarria dela, eta bere eraikuntza independentea duela bizitzan zehar. Bestalde, garrantzitsua da testuinguruak garapen pertsonaleko prozesu horretan duen eragina eta gertatzen diren diskriminazioak azpimarratzea.

Gainera, funtsezkoa da adieraztea aniztasuna eta "arautzailea ez dena" ez direla gauza bera. Izan ere, aniztasunaz hitz egiten denean, mota guztietako pertsonen ari garela ulertzen da. Hala ere, "ez-arautzaileaz" hitz egitean, askotan, aurreiritziek edo estereotipoek kondenatutako aniztasun-eredu batzuez ari gara.

2.1. Beharretik ekintzara

Gaur egungo gizarteak Paradigma Prokreatibotik baino ez du ulertzen sexualitatea. Eredu hori GIZA SEXU IZATEAREN konplexutasuna eta aniztasuna genitaletara, koitoaren praktikara eta "desio heterosexualaren" zilegitasun sozialera murrizten duten zenbait arauk osatzen dute.

Ondorioz, sexualitatea eta harreman erotiko "normalak", osasuntsuak, onak eta abar "zer" diren adierazten duten arau sexualak sortzen dira, eta itxaropen zurrinak eta osagarriak proiektatzen dira emakume edo gizon "normala" izatearen inguruan. Manuel Lucas Matheu sexologoak *"Sed de piel, ¿feminizar el futuro?"* Liburuan dioten bezala. *"Prokreatibismoak gizabanako zibilizatuaren komunikazio-ahalmena mugatzen du, sozialki eta banaka ere jardunez. Sozialki, larruazalaren egarria asetzeko aukera onartuta duten pertsonen kopurua bakarrik prokreatiboak izan daitezkeen adin eta baldintza pertsonaletara mugatuz. Horrela, haurrak eta zaharrak lehiaketatik kanpo geratzen dira. Lehenengoak behar beste babesten dituzte kode legalek eta moralek. Bigarrenetan, muga zahartzaroagatiko arbuio kultural orokorraren parte da "*

Sexualitatearen ikuskera hori estres- eta larritasun-fabrika bat da, eta hezkuntzak funtsezko zeregina du okerreko mezuak iragaztea ahalbidetuko duen kontzientzia kritikoa pizteko orduan. Horrenbestez, sexu-hezkuntza (sexologikoa) funtsezko tresna bihurtzen da pertsona bakoitzak bere sexualitatea duela jakiteko, eta horrek bakarra eta errepikaezina bihurtzen du, eta pertsona adina sexualitate daudela ondorioztatzea, hau da, aniztasuna eta diferentzia landu beharreko balioak dira.

Ondorioz, locus genitalisaren eredu zaharra bere mugara iritsi da. Kontua da sexuaren morbositatetik sexuen izatearen ezagutzara pasatzea. Eta Efigenio Amezua sexologo ospetsuak dioten bezala: *"Sexua sentitu eta sensatu daiteke, baina berau ere pentsatu beharra dago"*. Bere lanean, "Sexuen teoria, sexologiaren letra txikia", sexuak gehiegizko moralaz gain epistemologia akats bat ere badakarrela adierazten du. Beraz, eraldaketa sozialek ezin dute ezer berririk eskaini, kontua ez baita soilik Kontzientzia (Politika), baizik eta Zientzia, Epistemologia, hau da, kontzeptuak.

ITURRIAK:

- Lucas Manuel *"Sed de piel, ¿feminizar el futuro?"* 285. orria
- www.sexologiaincisex.com

2.2 Emakumeen gorputza kontrol-lurralde gisa

Gaur egun, patriarkatuak emakumeen gorputzak menderatzen eta kontrolatzen ditu, status quoa mantendu eta legitimatzeko helburuarekin. Horrek emakumeen sexualitateaz eta osasunaz jabetzea dakar. Hori guztia, bi aliatu esker: emakumeen sexualitatearen eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko interes zientifikorik eza, eta, zehazki, sexu-indarkeria eta indarkeria sinbolikoaren inguruan; azken hori honela laburbiltzen da: emakumeen gorputza kontrol-lurralde gisa.

Feminismoen lorpena da emakumeak subjektu politiko eta pertsona gisa aitortzea, eta, horri esker, beste batzuen objektu izateari utzi zioten, beren gorputz eta identitateetan burujabe izateko. Baita sexuatuak izatea ere. Hala ere, sexuen sozializazio sexistaren ondorioz, Simone de Beauvoirrek adierazi zuen bezala, emakumeek bigarren mailako lekua izaten jarraitzen dute Giza Izate Sexualaren Mapan: bigarren sexua. Ondorioz, sexuen arteko antolaketa eta elkarrekintza publiko zein pribatua ez da ez berdintsua ez sinergikoa, androzentrikoa eta desorekatua baizik.

Sexologia eta feminismo komunitarioari jarraituz, gorputzak sexuatuak dira. Beraz, gorputza sexualitatearen mapa da, hau da, emakumeak bizi, sentitu, sufritu, elkarreragin, sendatu eta eragiten duten tokia.

Jean-Luc Nancy filosofoak dioenez, *"Ez dugu gorputzik, gorputza gara"* (Vasquez Rocca, A., 2008, 3. or.), eta emakumeen kasuan, bigarren gorputza. Eta Julieta Paredes feminista komunitarioak dioenez, *"Gure gorputzek duten beste ezaugarrietako bat bizitza indibidual eta kolektiboa aldi berean dutela da, eta hiru eremutan garatzen dira: egunerokotasuna, biografia bera eta gure lurraldeen historia"*.

Feminismo komunitarioak gorputza gorpuztasun-integraltasun gisa ulertzen du, biogenetikatik energetikora, afektibitatetik, sentsibilitatetik, sentimenduetatik, erotismotik, espiritualtasunetik eta sentsualtasunetik, sormeneraino iritsiz. Emma Chirix soziologoaren arabera, berreskuratu nahi ditu *"Norberaren energiak eta osasuna, gorputzak deskolonizatuz, pentsamendu-matrize zuri, moderno eta mendebaldekotik abiatzen diren logika binomikoak baztertuz"*.

ITURRIAK:

- Vasquez Rocca, Adolfo (2008) Las metáforas del cuerpo en la filosofía de Jean Luc Nancy. www.revistasophia.com.
- Emma Chirix Lucrecia Massonek aipatua (2018) "No se puede pensar sin el cuerpo". www.pikaramagazine.com

2.2 Emakumeen gorputza kontrol-lurralde gisa

Emakumeen gorputzak desegokiak eta ez direla beraienak dioten errealitate patriarkalak, beste ondoez batzuen artean, gordofobia eta horien erabilera eta kontsumo matxista sortzen ditu. Horrez gain, emakumeen sexualitatearen inguruko ekoizpen zientifikoa oztopatzea eta emakumeengan sexualitatearen bizipen negatiboa izatea. Azken batean, bigarren gorputz kolektiboaz ari gara. Lucrecia Masson ekintzaile transfeminista dekolonialaren arabera, *"Desegokiak sentitzea ez da pertsonala, kolektiboa baizik"*.

Emakumeek beren sexualitatea eraikitzen dute beren gorputzak sarbide publikokoak direlako agindu matxistaren pean. Horregatik, modu anbibalentean bizi dira gorputzean, leku segurua eta hazkunde- eta ongizate-iturria izatearen esperientzia zailduz. Ondorioz, biografia sexuatua emakumeen gorputza berea ez den sentimenduak markatzen du, eta "ni sexualaren" deskonexio sakona sortzen du. Hau da, norberaren beharren eta nahien kontzientzia eta ondorio txikiagoa. Laburbilduz, murriztu egiten dira sexu-autoestimua, zentzumen-esperientzia eta negoziazio-trebetasunak. Azken batean, auto-zaintza bera.

ITURRIAK:

- Lucrecia Masson (2018) No se puede pensar sin el cuerpo. www.pikaramazine.com
- Chirix García, E. D. (2009) Los cuerpos y las mujeres kaqchikeles.
- Ormaza Imatz, A. (2009) La erótica del cuerpo-El cuerpo de la erótica: El cuerpo en la erótica. En mi piel. Anuario de Sexología A.E.P.S 2009



Ikerketa-txostena: "Sexu-ahalduntzearen autopertzepzioa"
www.munduberriak.com

2.2 Emakumeen gorputza kontrol- lurralde gisa

Hala ere, Emma Chirix soziologoak dioenez (Chirix García, 2003:184), *"Gorputzaren esanahia autoestimuaekin lotuta dago, haientzat gorputza zaintzea autoestimua berreskuratzeko modu bat baita, elkar maitatzeko eta zaintzeko beharra sentitzen dutelako, mina eta sufrimendua uztean datzana eta elkar maitatzen ikasten dutelako"*. Ildo horretan, Julieta Paredes feminista komunitarioaren esanetan, *"Gure gorputzak bizi osorako botere-harremanak markatu nahiko gaituzten tokia dira, baina gure gorputzak ere askatasunaren lekua dira, eta ez errepresioarena"*. Azkenik, Agurtzane Ormaza sexologoaren ustez, *"Gure gorputza, gure larruazala, bizitzako esperientzien grabatzailea da, eta, aldi berean, bizitzaren erakuslea. Horrela, erotika erotikatik, gure gorputzetik eta gure azaletik eraikitzeko eta berreraikitzeko gai gara "*.

Laburbilduz, emakumeen gorputzak kanpoko kontrol-lurraldea dira, baina gudu-eremu propioa. Beraz, emakumeek beren gorputzak autozainketaren bidez eskuratzen dituzten heinean, hau da, beren sexualitatearen eragile diren heinean, erotika korporeizatua singularrean biziko dute, beren burua ulertzeko eta gainerako pertsoneri arreta emateko.

ITURRIAK:

- Lucrecia Masson (2018) No se puede pensar sin el cuerpo. www.pikaramazine.com
- Chirix García, E. D. (2009) Los cuerpos y las mujeres kaqchikeles.
- Ormaza Imatz, A. (2009) La erótica del cuerpo-El cuerpo de la erótica: El cuerpo en la erótica. En mi piel. Anuario de Sexología A.E.P.S 2009

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

Arestian adierazi dugun bezala, sexu-ahalduntzea sexualitateari buruzko ezagutzak zabaltzeko behar praktiko baten kristalizazioa da. Zehazki, emakumeen dimentsio sexualaren “botere propioa, boterea norekin eta boterea zertarako” eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeari egiten dio erreferentzia.

- **Botere propioa:** *botere subjektiboa da, ahalduntze indibiduala.*
- **Boterea norekin:** *botere-irabazia da, beste pertsona batzuekin batera.*
- **Boterea zertarako:** *Narratiba kolektiboak erabiltzea eraldaketa soziopolitikoak eragiteko.*

Hala ere, askotan, eredu bio-psikosozialaren arabera esku hartzearen garrantzia aipatzen dugunean, oso labur adierazten du horrek emakume bakoitzaren biografia funtsezkoa dela bere sexualitatearen interpretazioa ulertzeko. Eta hori zuzenean lotuta dago ikerketa honen gure aztergaiarekin: emakumeen ahalduntze sexualaren autopertzepzioarekin.

Autopertzepzio hori interes estrategikotzat jotzen da, eta, ezinbestean, emakume bakoitzak bere ahalduntze sexualari buruz duen autopertzepzioaren subjektibotasunaren, duintasunaren kontzeptura igortzen du.

Sexu-ahalduntzearen autopertzepzioa 8 aldagaitan egituratu dugu.

- **Sexu-ezagutza. A1**
- **Gogobetetze sexuala. A2**
- **Autoestimua sexuala. A3**
- **Sexu-motibazioa. A4**
- **Kontzientzia feminista. A5**
- **Sexu-indarkeriak identifikatzea. A6**
- **Sexu-assertibitatea. A7**
- **Autoeraginkortasun sexualaren pertzepzioa. A8**

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

Ikerketaren 8 aldagai estrategikoen eragiketa-definizioak ezarriz.

A1/ SEXU-EZAGUTZA:

Edo bestela esanda, sexualitatearen ezagutza. Kontuan hartuta sexualitatearen paradigma nagusiaren ezaugarriak falozentrismoa eta erreproduktibismoa direla, besteak beste. Horrek esan nahi du emakumeen sexualitatea gutxi aztertu dela azterketa sexologikoetan, beren erantzun sexualaren ezagutzari dagokionez, plazerraren fisiologiari dagokionez, ugalketa-eremuan soilik zentratzeko.

Margulisek poetikoki adierazten duen bezala, sexua ez da ugalketa-estrategia bakarrik, baizik eta gai bizia ere bada, eta, gero eta aldakuntza handiagoarekin, ingurune kosmikoaren izaera ziklikoa barneratzen du, sexu-maitasunaren erritmoan ere aplikatua, unibertsoa musika nagusiaren permutazio gisa. Azken batean, erakarpina eta batasun sexuala gizakiaren botere erotikoa inplizitu gisa ulertzea da helburua.

Rosemary Basson psikiatra kanadarrak alderdi erotikoa hori asko aztertu zuen 2000. urtearen hasieran, eta *emakumeen erantzun sexualaren eredu zikliko biopsikosoziala* feedback gisa definitzen du alderdi fisiko, emozional eta kognitiboen artean.



Ereduak dioenez, nahiz eta emakumeetan* egon litekeen desio erotikoa bat, sexu-joera bat eragiten duena, maizago sexu-jarrera neutroa eman daiteke. Sexu-jarduera bat egiteko joera, hain zuzen, zeinak, estimulu emozionalak eta kognitiboak nahikoak eta egokiak badira, neutraltasunetik sexu-kitzikapenera eta desira erotikora igarotzea eraginez, eta, horrela, sexu-motibazioa bera handitzea (A4). Egileak, batez ere, "Emakume" heterosexualak eta bikote egonkor baten eremuko harreman erotikoa aipatzen ditu.

ITURRIAK:

- La Calle Pedro, 2019 "Manual de asesoramiento sexológico en ginecología".
- <https://www.sexciencia.com/bases-conceptuales/respuesta-sexual/el-modelo-ciclico-de-basson/>
- Sanz Ramón, Fina (2011) Autoconocimiento, Sexualidad y Relaciones Humanas. En Cuadernos de Pedagogía. nº 414.

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

A2/ GOGOBETETZE SEXUALA:

Asebetetze sexuala pertsona batek bere jarduera sexualarekin lotuta izandako ongizate eta osotasun mailaren arabera ebaluatzen da (Carrobles eta Sanz, 1991).

Sexu-gogobetetze ezak arazoak eragin ditzake, eta horiek kexa gisa aurkezten dira sexu-harremanen desio-mailari eta maiztasunari dagokienez, bereziki bikotearen maiztasunari eta irrikari dagokienez. Era berean, asebetetze sexualeko arazoak bikotekidearekin egindako jarduera sexualen aniztasunarekin lotuta egon daitezke, eta jarduera horiek monotono eta ohikoak har daitezke (Carrobles eta Sanz, 1991).

Pinney E., Gerard M. eta Danney M. (1987) egileek honela definitzen dute gogobetetze sexuala: *"Pertsona batek bere bizitza sexualarekiko duen gustuaren edo disgustuaren ebaluazio subjektiboa, edo, bestela, subjektuak koitoaren edo kupularen bidez plazer sexuala lortzeko duen gaitasuna"*. Gogobetetze sexuala, halaber, honela defini liteke: *"Norberaren sexu-harremanei lotutako alderdi positiboak eta negatiboak ebaluatzean sortzen den erantzun afektiboa"* (Byers, Demmons eta Lawrance, 1998).

Sexualitatearen beste alderdi batzuek, hala nola orgasmoak, kitzikapenak edo desio sexualak, gero eta arreta handiagoa jaso dute. Ez bezala, ikasketa gutxiago egin dira asebetetze sexuala eta horri lotutako prozesuak aztertzeko. Sexu-asebetetzea sexu-jardueraren maiztasunarekin (Young eta Luquis, 1998), orgasmoaren maiztasun eta sendotasunarekin (Darling, Davidson eta Jennings, 1991), intimitate-mailarekin (Byers eta Demmons, 1999) eta bikotearekiko komunikazioarekin (Stulhofer et al, 2004) positiboki erlazionatzen dela aurkitu da.

ITURRIAK:

- Carrobles J. A. et al. (2011) Funcionamiento sexual, satisfacción sexual y bienestar psicológico y subjetivo en una muestra de mujeres españolas

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

A3/ AUTOESTIMU SEXUALA:

Autoestimua norberaren balioespentzat hartzen da, pertsonak bere bizitzan jasotzen dituen emozioak, pentsamenduak, sentimenduak, esperientziak eta jarrerak barne hartzen ditu (Mejía, Pastrana, & Mejía, 2011). Bizi-zikloan zehar garatzen da, besteekiko interakzioetatik abiatuta, "Ni"aren bilakaera ahalbidetuz, pertsonak elkarri ematen dioten onarpen eta garrantziari esker (Naranjo, 2007). Giza ezaugarria eta beharra da, afektuan eta aitortzan oinarrituta eraikitzen da, eta funtsezkoa da ongizaterako.

Autoestimu sexualaren konstruktuk, lehen aldiz, Finkelhorek (1979) proposatu zuen, Sexual Self-Esteem eskala garatu zuen autokontzeptu sexualarekiko jarrerak neurtzeko. Willemsenek (1987) autoestimu sexuala autoestimuaaren kontzeptu globalaren domeinu gisa deskribatu zuen. Helminiak (1989) auto-onarpen sexualaz hitz egiten du, *"erosotasuna norberaren gorputzarekin, sexualki hartzailea den aldetik"* bezala definituta. Snellek eta Papinik (1989) honela definitzen dute autoestimu sexuala: *"Estimazio positiboa eta sexualitatea modu pozgarrian eta plazerez esperimientatzeko gaitasunarekiko konfiantza"*.



ITURRIAK:

- J. C. Sierra et al. (2018) La autoestima sexual: su relación la excitación sexual.
- Mejía Estrada, A., Pastrana Chávez, J.J. & Mejía Sánchez, J.M. (2011) La autoestima, factor fundamental para el desarrollo de la autonomía personal y profesional.

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

Willemssen arabera, ikuspegi sexologikotik, autoestimua sexuala gure sexualitatearen autopertzepzioa, estimua eta auto-erregulazioa da. Konstruktua hori identitatearen parte da, kasu honetan, "Ni sexuatuaren" parte, eta autopertzepzioaren eta pertzepzio sozialaren arteko elkarrizketan garatzen da; hau da, eraikitzen ari garen eta garen emakume edo gizon gisa, dugun gorputz gisa eta gauzatzen ari garen jokabide sexual gisa adierazten gara.

Sexu-autoestimua eta sexu-asetibitatearen (Ménard & Offman, 2009; Torres-Obregon, Onofre-Rodríguez, Sierra, Benavides-Torres & Garza-Elizondo, 2017), sexu-asebetetzearen (Calvillo, Sánchez-Fuentes & Sierra, 2018) eta sexu-esperientziaren (Snell, Fisher & Walters, 1993) artean asoziazio positiboak aurkitu dira. Sexu-autoestimua maila nabarmen baxua bikotearen sexu-perfekzionismoarekin lotu da (Stoeber & Harvey, 2016), bai eta emakumeek sufritutako sexu-abusu eta abusu fisiko esperientziekin ere (Bornefeld-Ettmann et al., 2018).

Amaitzeko, Snell, Fisher & Schuh (1992) lanaren arabera, autoestimua sexualak izaera positiboa islatzen du sexuari dagokionez, eta, horrekin batera, sexu-erruaren, antsietate sexualaren eta depresioaren sentimenduak baztertzen ditu. Hau da, sexualitatearekiko jarrera emozional positiboak eskatzen ditu. Gure sexualitatearen dimentsio positibo horrek autoeraginkortasun sexualaren pertzepzio egokia ahalbidetzen du.

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepzioa

A4/ SEXU MOTIBAZIOA:

Psikologiatik, motibazioa pertsona baten jokabidea bultzatu, zuzendu, mantendu eta zehazten duen barne-egoera gisa definitzen da. Ekintzara garamatzan osagai psikologikoa da, eta, epistemologikoki, motibatzeke ekintza eta ondorioa esan nahi du. Motibo bat balio bat da norbaitentzat. Beraz, motibazioa pertsona bat hura lortzeko martxan jartzen duten balioen multzoak osatzen du.

José Antonio Carrobles (2011) sexologoak honela definitzen du sexu-motibazioa: sexu-harremanak izateko eta sexualki aktiboak izateko jarrera positiboa. Lehen aipatu dugun gure ikuspegitik, sexua balio bat da, hau da, Giza Sexu Izatearen Maparen adierazpen guztiak estimulatzeko dituen motorra. Azken batean, gure identitateak, orientazioak, beharrak, desioak, fantasiak, erakarpenak, sentimenduak, irrikak eta abar sentitu, bizi eta adieraztera bultzatzen gaitu, gorputz sexuatuaren eta jokabide sexualaren bidez.

Sexua balio gisa eta sexuaren balioak pertsonen barne-estimuluekin, kanpo-estimuluekin eta estimulu pertsonalekin elkarreragiten dute, sexualitatearen eredu BIO-PSIKO-SOZIALA paradigma sistemikoaren babespean.



ITURRIAK:

- Carrobles J. A. et al. (2011) Funcionamiento sexual, satisfacción sexual y bienestar psicológico y subjetivo en una muestra de mujeres españolas

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

Ondorioz, motibazio intrintsekoa, estrintsekoa eta pertsonala gure fisiologia sexualak, nortasunak, esperientziek eta bizipenek baldintzatzen dituzte, bai eta nagusi den eredu sexualak ere, matxista, androzentrikoa eta prokreatiboa izatea ezaugarri duena.

Motibazio intrintsekoan, pertsona hasten da sexu-jarduera bat egiten barne-pizgarrien bidez, jarduera hori egiteko plazeraren beraren bidez. Jokabide bat gauzatzearen edo gauzatzearen gogobetetze sexuala ez dute kanpoko faktoreek zehazten. Beraz, auto-erotikaren eta autoestimu sexualaren bidezko auto-satisfakzioarekin lotuta dago.

Motibazio estrintsekoari dagokionez, pertsona bat jarduera sexual bat egitera bultzatzen duen estimulu erotikoa kanpotik dator, kanpoko pizgarri bat da eta ez dator jarduera sexualetik. Errefortzu gisa funtzionatzen du eta arrazoi sozialek edo bestelakoek bultzatzen dute.

Azkenik, motibazio pertsonala behar sexualengatik eta jokabide sexual jakin bat gauzatzetik edo ez egitetik lortzen diren pizgarriengatik mobilizatzen da.

Amaitzeko, sexu-motibazioa sexualitatearen keinu-adierazpenaren bultzatzailea da, bai banaka, bai harremanetan. Perezen, Salgueroen eta Saezen ikerketa-artikulu batean adierazi dutenez, beste egile batzuek Giza Erantzun Sexualaren motibazio-fasea desio erotiko gisa izendatu dute.



ITURRIAK:

- Pérez Nieto, Miguel ángel, Salguero Lucas Lara, Sáez Sesma Silberio, (2019) Revista sexología y sociedad.

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziara

A5/ KONTZIENTZIA FEMINISTA:

Gerda Lerner historialariaren hitzetan, kontzientzia feminista sortzeko emakumeen buruak pentsamendu patriarkaletik askatu eta emakumeen historia sortu behar da.



Emakumeek, giza kolektibo gisa, sistema patriarkalaren, sexuen antolaketa androzentrikoaren, matxismoaren ideologiaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako kontzientzia politikoa hartzea da. Hau da, zapalkuntzaren, menderatzearen eta esplotazioaren ezagutza eskuratzea eta barneratzea, eta errealitate berri horretara iratzartzea, ezagutza berri horretatik sortua, hura desagerrarazteko eta ekintzaren bidez eraldatzeko.

Errealitate patriarkalaren kontzientzia progresiboa, arduratsua eta sakona hartzea, autoezagutza (norberaren sexualitatea) eta kanpo-ezagutza (emakumeen sexualitatearen eta haren historiaren inguruko ezagutza zientifikoa) modu global eta integratuan barne hartzen dituen, “kontzientzia feminista” esnatzera eta status quoaren gaitzespena eramaten duena.

Azken batean, pertsonak gaitz jabetzea, sexualitate propioa duten subjektu politikoak. Honekin batera, norberaren eta taldearen botereaz jabetzea, baita norberaren gorputzaren autonomiaz eta erabileraz sexualitatearen bizipen positibotik.

ITURRIAK:

- Mayoko Ortego E. (2020) Afrofeminismos en el estado español: Cartografiar la blanquitud, desplazar la centralidad. www.pikaramagazine.com
- Barroso, J. M. (2014). **Feminismo decolonial: una ruptura con la visión hegemónica eurocéntrica, racista y burguesa. Entrevista con Yuderlys Espinosa Miñoso.** *Iberoamérica Social: revista-red de estudios sociales* (III), pp. 22 – 33

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

Kontzientzia feminista izateak berekin dakar, halaber, ikuspegi (auto)kritikoz berrikustea feminismoaren historia propioa, esperientzia kolektibo bat eraikitzeko. Esther Mayoko arrazakeriaren aurkako historialariak dioenez, "Feminismoa narrazio supremazista eta kolonialista berberen partaide izan da, bere arrazakeria eta, beraz, arrazakeria zalantzan jartzea saihestuz".



Beraz, emakume guztiak ezagutzea eta aitortzea kontzientzia feminista hartzea ere bada. Begirada ertzetatik jasotzea da helburua; proposamen horiek ez dira erdigunean egon, bazterreko ahotsak izan dira eta gutxi entzun dira. Yuderkys Espinosa feminista dekolonialak adierazi duenez, "ezin da emakume gehienen zapalkuntza esplikatuz soilik generoari erreparatzen dion ikuspegitik, arrazari, klaseari eta heterosexismoari ere erreparatzen dion ikuspegitik baizik".

Ilido horretan, Maria Lugones filosofoak honako hau dio: *"Generoa benetan aplikatzen da gizakiaren kanonaren barruan ekoiztuak izan direnentzat, hau da, jende zuria eta europarra edo europarraren ondorengoa direnentzat, gainerako jendearentzat, gizaki ez bezala pentsatua izan zen jende horrentzat, ezinezkoa zen generoa aplikatzea"*. Azkenik, zapalkuntzaren baterako eraketaren begirada proposatzen du Espinosak, eta Mayokok feminismoa afrikartasunetik eta migrazioetik irudikatzen duten emakumeen errekonozimendua.

ITURRIAK:

- Mayoko Ortego E. (2020) Afrofeminismos en el estado español: Cartografiar la blanquitud, desplazar la centralidad. www.pikaramagazine.com
- Barroso, J. M. (2014). **Feminismo decolonial: una ruptura con la visión hegemónica eurocéntrica, racista y burguesa. Entrevista con Yuderkys Espinosa Miñoso.** *Iberoamérica Social: revista-red de estudios sociales* (III), pp. 22 – 33

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

A6/ SEXU INDARKERIAK IDENTIFIKATZEA:

Sexu-erasoak delitu bat dira, eta hala tipifikatuta daude indarrean dagoen Zigor Kodean. Baina legez sexu-askatasunaren urraketa diren arren, emakumeen eta gizonen iruditeria kulturalean interpretazio bat baino gehiago eta ñabardura asko dituzte.

Indarkeria sexista emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen bat da, eta berdintasuna lortzeko oztopo; indarkeria hori behar bezala ulertzea funtsezkoa da indarkeria desagerrarazteko. Indarkeria izendatzeko hainbat modu dauden arren, duela belaunaldi batera arte normalizatutako gizarte-arazo hori ulertzeko paradigma berria da aldebakarreko jokabidea dela (gizonena emakumeen aurka), egiturazko desberdintasun-egoera batetik eratorria.

Gaur egun, kontzientzia eta sentsibiltate handiagoa dago emakume batek bere bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasaten dituen erasoen inguruan, eraso fisikoak, psikologikoak, sexualak, ekonomikoak... Hala ere, bikotearen esparrutik kanpo, lan-harremanetan, familia-harremanetan edo aldi baterako harreman afektibo-sexualetan, edo inolako harremanik gabe, emakumeen askatasuna, segurtasuna eta mugikortasuna mugatzen duten jokabide oldarkorrak sortzen dira. Jokabide horiek sexu-ñabardura bat hartzen dute, eta hertsapen, jazarpen, larderia, mehatxu... gisa aurkez daitezke, edo emakumeen borondatea makurrarazteko eta haien adostasuna behartzeko bestelako jarduera gisa.

Azterlan horren 36. orrialdean funtsezko zerbait jasotzen da: *“emakumeek bizi duten sexu-indarkeria isilarazteko tabua hausten duten heinean eta indarkeria horri zilegitasuna kentzen dioten heinean, autoritatea lortzen dute baimena emateko eta ukatzeko eskubidea baliatzen duten subjektu gisa, beren baietza eta ezetza eztabaidarik gabe aitortuak eta onartuak izateko eskubidea”*.

ITURRIAK:

- “Agresiones sexuales: cómo se viven, cómo se entiende y cómo se atienden”. Gobierno Vasco, 2011
- http://www.feministas.org/IMG/pdf/Agresiones_sexuales.pdf

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

A7/ SEXU ASERTIBITATEA:

Asertibitatea, pertsonen arteko testuinguru batean, egoeraren arabera behar bezala sentitzen, pentsatzen, desiratzen eta behar duguna komunikatzeko trebetasun soziala da. Jokabide horren bidez, errespetuz eta argi eta garbi adierazten dizkiegu gure eskubideak besteei.

Sexu-asertibitatea hainbat modutan definitu da. Painterren (1997) arabera, asertibitate soziala sexu-testuinguru batean gauzatzeko gaitasuna da. Morokoff et al.en (1997) arabera, sexu-jarduerari ekiteko, nahi ez den sexu-jarduera baztertzeko eta nahi diren sexu-jokabideak, antisorgailuen erabilera eta sexu-portaera osasungarrienak negoziatzeko gaitasuna da. Bi definizioek sexualitatearen inguruko asertibitateari egiten diote erreferentzia, eta ikerketa askok erakusten dute asertibitate sexuala giza sexualitatearen funtsezko osagaia dela.

Sexu-asertibitatea sexu-erantzunaren hainbat alderdirekin lotzen da (desio erotikoa eta sexu-asebetetzea), bai eta sexu-biktimizazio eta hertsapen maila eta maiztasun txikiagoekin ere (ikus Santos-Iglesias eta Sierra, prentsan; Sierra, Santos, Gutierrez-Quintanilla, Gomez eta Maeso, 2008), eta, gainera, ez dago jokabide sexual arriskutsurik.

Ikuspegi sexologikotik, asertibitate sexuala giza jokabide sexualaren parte den trebetasun erotikoa gisa ulertzen dugu. Hau da, gure sentimenduak, nahiak, iritziak, beharrak eta eskubideak testuinguru erotikoa edo erotizatu batean behar bezala eta besteei errespetuz adierazteko gaitasuna. Laburbilduz, egoera erotikoa batean modu asertiboan komunikatzea da helburua, gure nahiak, beharrak eta gorputzaren eta emozioen mugak bermatuz eta legitimatuz. Azken batean, norbere burua zaintzea eta bestea zaintzea harreman intersexualetan. Sexu-asertibitate egoki eta doiak sexu-harreman egokiak errazten ditu, ekitateari, errespetuari eta erantzunkidetasunari dagokienez, eta zaildu egiten ditu jarrera eta jokabide sexual arriskutsuak eta abusuzkoak.

ITURRIAK:

- Santos-Iglesias P. y Sierra J. C. (2010) *El papel de la asertividad sexual en la sexualidad humana: una revisión sistemática*. Universidad de Granada.

2.3. Ahalduntzetik sexu-ahalduntzearen autopertzepziora

A8/ AUTOERAGINKORTASUN SEXUALAREN PERTZEPZIOA:

Bandurak honela definitzen du hautemandako autoeraginkortasunaren kontzeptua: *"Pertsona bakoitzak bere gaitasunei buruz egiten dituen judizioak; horien arabera, nahi duen errendimendua lortzeko moduan antolatu eta gauzatuko ditu bere ekintzak. Beraz, kontzeptuak ez ditu aipatzen eskura ditugun baliabideak, haiekin egin dezakegunari buruz dugun iritzia baizik".*

Javier Gómez Zapiain sexologo eta psikologoak hautemandako autoeraginkortasunaren teoria jokabide sexualaren eta kontrazeptiboaren eremuan aplikatzen du, eta auto-erregulazio-gaitasunarekin eta arriskuak saihesten dituzten portaerekin lotzen du. Autore horrek dioenez, jokabide sexualaren eta kontrazeptiboaren helburua osasun sexuala da, esperientzia sexual egokiak izatea, nahi ez den haurdunaldi arriskua saihestuz. Gainera, pertzepzio hori sexualitatearekiko jarrerarekin lotzen du, jarrera positiboak sexualki aktiboa eta autoeraginkorrak dela onartzea ahalbidetzen baitu. Azkenik, emakume erotofilikoak erotofobikoak baino autoeraginkorrak direla erakusten du.

ITURRIAK:

- Leyva et al. (2017) Relación entre asertividad sexual y autoeficacia para prevenir el VIH/SIDA en jóvenes universitarios del área de la salud
- Gómez Zapiain J., Ibaceta P., Muñoz F., Pardo E. y Ubilos S. (1996) Autoeficacia percibida en relación al comportamiento sexual y contraceptivo de los jóvenes.

Garrantzitsua da aipatzea erotofilia-erotofobia dimentsioa sexuarekiko jarrera emozionalekin lotuta dagoela, eta pertsonalitatearen dimentsio horrek adierazten duela estimulu erotikoei erantzuteko dugun jarrera emozio positibo eta negatiboen etengabeko aldian. Non sexualitatearekiko jarrera positiboen muturra erotofilia izango litzatekeen eta kontrakoa erotofobia. Horrela, pertsona erotofobikoek emozio desatseginekin erantzungo dute sexualitateari dagokionez.

Sexologiaren ikuspegitik, sexualitateari dagokionez, oro har, eta, zehazki, erotikari dagokionez, eraginkortasunaren pertzepzio gisa definitzen dugu *Autoeraginkortasun sexualaren pertzepzioa*. Sentitzea-bizitzea-adieraztea sexudun, sexualki eta erotikoki modu eraginkorrean, alegia. Hau da, aldeztasun aurretik prest eta aktibo egotea, egoera erotikoei aurrea hartu ahal izatea eta arrisku-egoera bat maneiatzeko gai sentitzea. Beraz, beste pertsona batzuekiko egoera erotikoak behar bezala kudeatzeko dugun eraginkortasunari buruz dugun iritzia da. Azkenik, prebentzioaren ikuspegitik, Levinsonek proposatzen du arrisku-egoerak saihesteko liratekeela: sexualitatea bera onartzen eta aitortzen bada, kontrazeptzioa lortzeko eta erabiltzeko gaitasuna badu, asertiboa bada eta sexu-komunikazioa badago.

2.4 Norberaren boteretik (autopertzepzioa) botere kolektibora (narratiba kolektiboak)

Ikerketa honen bidez, ildo argi bat marraztu nahi dugu: batetik, emakumeek beren sexu-ahalduntzeari dagokionez dituzten autopertzepzioak ezagutzea, eta, bestetik, emakumeen ahalduntze sexualaren narratiba kolektiboak ezagutzea.

Aurrez autopertzepzioaren kontzeptua definituta, “narratiba kolektiboak” kontzeptua geratzen zaigu. Oroimenak egitura narratiboa du. Bere edukiek, formek eta adierazteko moduek horrela erakusten dute. Memoria kolektiboaren ikuspegiaren fundatzaileen planteamenduei berriro helduz, Halbwachs, Blondel, Bartlett eta Vygotsky, eta Brunerren postulatuetatik hausnartuz, memoria, baita indibiduala ere, diskurtso formak eta esperientziak antolatzeko moduak osatzen dituzten narrazioen gainean eraikitzen da. Adibidez, iraganekoak, kulturalki esanahiz hornituak direnak, eta aurkezten diren pertsona, talde, gizarte edo kolektibitateari ulergarriak izateko, oroitzen edo kontatzen ari denaren egiantza erakusten duten kontakizun logikoetan adierazi behar direnak.

Izan ere, eguneroko bizitzan emakumeek sexualitatearen esparruan izandako esperientzia kolektiboari buruzko narrazio ugari aurkitzen ditugu. Narrazio horiek beharrezko interseksionalitatea izan behar dute, emakumeen ikuspegi homogeneousatua hausteko.

Hala ere, egia da ikerketaren txostena idaztean arreta berezia jarri dugula emaitzak ez estrapolatzeko ezta Sexual Politics egiteko.

Bestela esanda, ez dugu politika egin nahi, emakumeen sexualitatearen dimentsioaren errealitateari buruzko ezagutza sortzea baizik, eta, horrekin batera, hobetzeko proposamenak egitea.

ITURRIAK:


MENDOZA GARCIA, Jorge. La forma narrativa de la memoria colectiva. Polis [online]. 2005, vol.1, n.1, pp.9-30. ISSN 2594-0686

3. Lan-hipotesia: arazoaren formulazioa

Lan hipotesia: formulaziotik espero diren emaitzetara


Datuen prospekzioan eta espero diren emaitzen eztabaidan zehatzak izateko, Sexualitatearen egungo Paradigmaren 4 alderdiak hartzen ditugu kontuan.

Sexualitate koitala, sexualitate erreproduktibista, sexualitate genitalizatua eta sexualitate sanitarizatua dira.



*Taula originala (gazteleraz)

Horrela, 8 aldagai eta 4 korrelazio handi ezarri ziren.




Lan hipotesia: formulaziotik espero diren emaitzetara

Planteatzen dugu sexu-ezagutza zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gogobetetasun sexual handiagoa, zenbat eta autoestimua sexual handiagoa, orduan eta motibazio sexual handiagoa, zenbat eta kontzientzia feminista handiagoa, orduan eta sexu-indarkeria gehiago identifikatzea, eta, azkenik, zenbat eta autoeraginkortasun sexualaren pertzepzio handiagoa, orduan eta asertibitate sexual handiagoa.

Era berean, handieneko parametroak ezartzen ditugu, eta, hurrenez hurren, txikienetik txikienera ere funtzionatu luke. Azken batean, eta interseksionalitatearen ikuspegia alde batera utzita, sexu-ahalduntzearen autopertzepzio positiboa duten emakumeak, neurri handiagoan edo txikiagoan, ondoko koadroan azaldutakora egokituko lirateke.

Sexu-ezagutzak nire sexu-autoestimuan laguntzen dit, pertsonen arteko harreman egokiak ezartzeko estrategiak errazten dizkit, eta erabakiak Erotofiliaren ikuspegitik har ditzaket (sexualitatearen jarrera eta jokabide positiboa), eta, horrela, modu positiboan onar dezakegu Giza Izate Sexuala, eta zaindu, adibidez, jarrera babesleak ezarriz topaketa erotikotan. “Autoeraginkortasun sexualaren pertzepzioa”ren eragiketa-definizioan luze eta zabal azaltzen den alderdia V8.



*Taula originala (gaztelera)

Lan hipotesia: formulaziotik espero diren emaitzetara

	Sexo Sexuación	Sexualidad	Erótica	Ars Amandi	Pareja
	Se es...	Se siente...	Se desea...	Se hace...	Se tiene...
De qué hablamos...	Soy chico, soy chica. Proceso de construcción en hombres y mujeres	Vivencias/ sensaciones/ sentimientos asociados al hecho de ser hombres/ mujeres	Fantasia, imaginario... forma de expresión de nuestras vivencias	Los modus operandi, ¿cómo montárselo?	Predisposición hacia la vida en pareja
Aspectos a trabajar	Procesos de sexuación: Físicos-sociales	Las actitudes 	Deseos, expectativas	La conducta	La relación de pareja
	Evolutiva (cambios físicos y "psicológicos")	¿Cuál es su/ nuestra visión de la sexualidad?	Educación sentimental y erótica	Habilidades personales	Expectativas, mitos, falsas creencias,...
	Asignación de sexo y proceso de construcción de personas sexuadas	Falsas creencias entorno a nuestra visión de la sexualidad	Ideales románticos		
	Etapas de desarrollo: identificación, constancia,...	Los valores y creencias: norma social y del grupo	Hacerse entender: comunicación verbal/no verbal		
	Construcción social del género	Autoestima y autoconcepto (valoración personal)	Habilidades de negociación		
		Percepción de riesgo	Exploración de los deseos	Intención de conducta	La primera vez
		Vulnerabilidad		Saber hacerse lo: habilidades en el manejo del preservativo	Concepción y anticoncepción
					Prácticas seguras: END, ITS
Aspectos previos (transversales)					
Manejo de información y conocimientos: HSH, procesos de sexuación, anatomía y fisiología, evolutiva, concepción y anticoncepción, ITS,...					
Aspectos en proceso de interacción con el sujeto sexuado (transversales)					
El grupo de iguales Las relaciones interpersonales: familia, educadores, amigos,... Accesibilidad, existencia y disponibilidad de instrumentos y recursos					

*Taula originala (gazteleraz)

ITURRRIAK:
-https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-ovjconte/es/contenidos/noticia/materiala_sexualitatea/es_material/adjuntos/EDUCACION_SEXUAL_CON_ARTE.pdf

Era berean, kontuan hartzen ditugu funtzio jakin batzuk betetzen dituzten jarrerak, hala nola: ingurunearen konplexutasuna murriztea, Giza Izate Sexualarekin (GIS) zerikusia duten alderdien konplexutasuna antolatuz eta egonkortuz: sexualitatearekin lotuta iristen diren informazioak, iritziak edo balioak.


Mercedes García Ruiz egileak adierazten duen bezala, sexu-jarrerako "mota" bat edo beste bat izatearen arabera, estimuluen ordenazio-mota desberdinak sortuko dira. Edonola ere, ingurunearen pertzepzio egonkorragoa, sendoagoa eta aurreikusteko modukoa ahalbidetzen dute. Joera eta sistema arauemaileak adierazteko aukera ere ematen dute, eta barne-gatazkak konpontzen laguntzen dute. Jarrerek talde sozialera egokitzen laguntzen dute, eta talde sozial jakin bateko kide gisa identifikatzeko eta identifikatzeko aukera ematen dute. Jarrera jakin bat informazioen, balorazioen eta asmoen emaitza izango da, eta pertsona jakin batek sexualitatearen eta haren adierazpenen aurrean "egoteko" aukera izango du.

Lan hipotesia: formulaziotik espero diren emaitzetara

Giza Izate Sexualaren testuingurutik, jarrerei buruzko eredua, hiru kategoriatan planteatzen da:

ARAU JARRERAK:

GISa arautzen eta antolatzen duen arauren baten existentzia, presentzia eta derrigortasuna adierazten duten sexualitatearekiko jarrerak ulertzen ditu. Continuum beraren barruan eta era bipolarrean, jarrera debekatzaileak eta permisiboak daude.



BORROKA-JARRERAK:

Emozio-jarrera bizienak aipatzen ditu, eta aktiboago agertzen da epaitzen diren alderdiei buruz. Erasoko eta defentsako poloetan gertatzen da.

ULERMEN-JARRERAK:

Kualitatiboki desberdina da, multipolarra. Enpatia, hurbilketa, atzematea eta judizio-objektu sexualarekiko ulermena. Sexualitateak lantzeko jarrerak dira.

Esan dezakegu ulergarritasun-jarrera horiek aipatu direla ikerketa honetako datuak biltzean egin diren bi feminarioetan. Hau da, Munduko Medikuek elkarteak eta Mujeres de colores para la paz y convivencia elkarteak nabarmendu dute bizi garen patriarkatuak (eredu matxista eta arrazista) zaildu egiten duela sexualitatea jarrera ulerkor batetik esperimendatzeko beharra.

4. Erabilitako metodologia



KUANTITATIBOA

- 40 GALDERETAKO GALDETEGIA:
- ERANTZUN KOPURUA GUZTIRA: 1.192
- ERANTZUN KOPURUA: 612 EUSKAL HERRIA (BIZKAIA)



KUALITATIBOA

- 4 ELKARRIZKETA ADITUAK DIREN EMAKUMEEI
- 2 FEMINARIO

METODOLOGIA Kuantitatiboa

Online egindako galdetegi bat da, bi hizkuntzetan eskainia, eta hainbat zati ditu:

- **Parte hartzen duten erakundeak.**
- **Azterketaren helburua:** Azterlan honen helburua emakumeek duten sexu-ahalduntzearen autopertzepzioa ezagutzea da*. Ulertzen da parte-hartze horrek bil dezakeen informazioa dibulgazio sexologiko eta feministako gaietarako baino ez dela erabiliko.
- **Xede-biztanleria*:** 18 eta 64 urte bitarteko emakumeak. Emakumeak direla sentitzen diren pertsonak, gizarteak kolektibo horretako kide izateagatik proiektatzen dituen rola eta itzaropenak betetzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe. Emakume sentitzeaz gain, beren nortasunaren beste alderdi batzuk dituzten pertsonak, protagonismoa eta esanahi handiagoa dutenak haientzat: trans, lesbiana, arrazista, etab. Beren nortasunagatik, adinagatik, etniagatik, sexu-orientazioagatik, klase sozialagatik eta abarrengatik ezarritako gizarte-arauak betetzen dituzten edo betetzen ez dituzten emakumeak.
- **Partaidetzagatiko ordainsaria:** Ez dago ordainsaririk. Parte-hartzea borondatezkoa da ezagutza zientifiko sexologikoa hobetzeko.
- **Arriskuak eta Deserosotasunak:** Azterketa honetan parte hartzeak gutxieneko arrisku-maila dakar parte-hartzaileentzat, ikertzaileek ez baitute inolako esku-hartzerik egiten.
- **Konfidentzialtasuna:** Datu Pertsonalak Babesteko Legearen arabera, jakinarazten dizugu emaitzak helburu zientifikoekin soilik erabiliko direla. Inola ere ez da emango parte-hartzaileetako baten identitatea. Lortutako datuak baliagarriak izango dira giza sexualitatearen arloan aurrerapen zientifikoa egiteko. Gainera, jakin ezazu eskubidea duzula, nahi baduzu, ikerketa honetan lortzen diren datuen berri izateko.
- **Informazioa:** Ikerketa honi buruzko informazioa lortzeko, info@munduberriak.com helbidera jo dezakezu.

Ikerketaren ikuspegia zehazten da, 3 begiradarekin:

1/ Ahalduntze Sexuala: Gorputzaren gaineko boterea lortzea da, hau da, sexualitatearen maparen gaineko boterea. Gure gorputzekiko (bizi-zikloak) eta sexualitatearekiko autonomia eta kontrola lortzea eskatzen du, desio eta fantasia erotikoak kontuan hartuta. Baita ugaltzeko gaitasuna ere.

Funtsean, nork bere burua zaintzea, nork bere burua ezagutzea eta nork bere buruari esperimentatzeko baimena ematea da helburua.

2/ Kulturarteko ikuspegia: Kultura-aniztasuna landu beharreko balio gisa ulertzen dugu. Kulturartekotasuna ezberdintasun etniko, kultural eta sexuala aitortzea eta munduan zehar emakumeen eta gizonen, komunitateen, herrien eta herrialdeen arteko desberdintasun- eta bazterketa-harreman historikoa eraldatzea helburu duen proposamena da.

3/ Nagusi den sexu-eredua: Gure gizartean eta munduko kultura guztietan nagusi den sexu-eredua androzentrikoa, matxista eta prokreatiboa da. Paradigma horrek sexu bakarra jartzen du erdigunean, eta Simone de Beauvoirrek adierazi bezala, sexuak lehen sexuan (gizona) eta bigarren sexuan (emakumea) sailkatzen ditu, bigarrenari subjektu sexuatuaren kategoria kenduz eta gizonak erabiltzeko eta gozatzeko objektu huts batera murriztuz. Ondorioz, emakumeen sexualitatea ez da emakumeena, eta gizonen sexualitatera egokitze hezten dira. Gainera, ikusmolde prokreatiboak giza sexualitatearen konplexutasuna eta subjektibotasuna murrizten ditu genitaletara, praktika koitalera eta desio heterosexualera.

ZIFRAK-DATUAK

Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) arabera, 2020/01/01ean, EAEko biztanleria osoa 2.199.711 bizilagunekoa da, sexuaren arabera bereizita, 1.132.495 emakume eta 1.067.216 gizon.

Azterlan honetan gehien interesatzen zaizkigun datuak Bizkaia dira, 18-64 urte bitarteko emakumeen artean 498.799 emakume lirateke.

	Total			0-19			20 -64			> = 65		
	Total	Hombres	Mujer	Total	Hombres	Mujer	Total	Hombres	Mujer	Total	Hombres	Mujer
Total	2,199,711	1.067.216	1,132,495	401,529	206,752	194,777	1,303,818	650,226	653,592	494,364	210,238	284,126
Territorios Históricos												
Araba / Álava	330,209	162,261	167,948	63,767	32,964	30,803	196,922	98,456	98,466	69,520	30,841	38,679
Bizkaia	1,149,044	552,871	596,173	200,653	103,279	97,374	685,165	339,619	345,546	263,226	109,973	153,253
Gipuzkoa	720,458	352,084	368,374	137,109	70,509	66,600	421,731	212,151	209,580	161,618	69,424	92,194

*Taula originala (gazteleraz)

Fecha 16 de Octubre de 2020

Fuente: Eustat. Estadística municipal de habitantes

METODOLOGIA KUALITATIBOA

Gainera, ikerketan askatasunez parte hartzeko baimen informatua emateko baimenaren zati bat adierazten da. Erantzun negatiboa eman duten emakume guztiak ez dira zenbatu partaidetzaren azken ehunekoan.

Hainbat alderdiri buruz galdetzen da, hala nola:

- Datu demografikoak (jatorri kulturala).
- Ikasketa-maila/lanbide mota.
- Amatasuna edo amatasunik eza. Seme-alaben kopurua.
- Erlijio-sinesmenak.
- Gaixotasuna/desgaitasuna.
